



Haur Hezkuntza

4. Modulua: ANIZTASUNA ESKOLAN DIZIPLINARTEKO LANA EGITEKO GIDA

2024-2025

AURKIBIDEA

4. Modulua: ANIZTASUNA ESKOLAN DIZIPLINARTEKO LANA EGITEKO GIDA. 1

| | |
|---------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. DALaren aurkezpena eta araudia | 3 |
| 1.1. DALaren AURKEZPENA..... | 3 |
| 1.2. DALaren INGURUKO ARAUDIA..... | 5 |
| 2. Ebaluazioa: gaitasunak, ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak..... | 6 |
| 2.1. GAITASUNAK..... | 6 |
| 2.2. IKASKUNTZAREN EMAITZAK | 6 |
| 2.3. EBALUAZIO IRIZPIDEAK..... | 8 |
| 3. DALaren GARAPENA | 10 |
| 3.1. PROIEKTUAREN FASEAK..... | 10 |
| 3.2. IRAKASLE TUTOREARI EMATEKO DOKUMENTUA..... | 11 |
| 3.3. DAL-aren ANTOLAKUNTZA | 12 |
| 2024/2025ko DAL KRONOGRAMA..... | 13 |
| I. Eranskina: GIZARTE-KONPETENTZIAK..... | 14 |
| II. Eranskina: IKERKETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA..... | 15 |

1. DALaren aurkezpena eta araudia

1.1. DALaren AURKEZPENA

Aurkezten dugun laugarren modulu honek “Aniztasuna eskolan” du izena. Eskolan erraz antzeman daitezke ikasleen arteko diferentziak -linguistikoak eta kulturalak, sozialak, gaitasun pertsonalen eremukoak, ...-, eta hezkuntza sistemaren eginkizuna da aniztasuna aintzat hartu eta bazterkeria saihestea, pertsona ororen gaitasunak erabat garatzeko aukera emanaz. Modulu honetan, irakaslegaei oinarritzko prestakuntza eskaini nahi zaie euren etorkizun profesionalean aurkituko duten errealitate anitz horri modu egokian erantzun diezaioten.

Aurreko moduluetan bezala, Moduluko Diziplinarteko Lan bat (DAL) proposatzen dugu, landu beharreko irakasgaien osagarri. Oraingoan, ikasleek hobekuntza proposamen bat egingo dute praktiketako ikastetxean/ikasgelan ezagutu duten aniztasun egoera bati erantzuteko, aldeztutako egoera eta hari ematen zaion trataera aztertuko dutelarik.

Proiektua gidatuko duen galdera eragilea honako hau izango da: **Zer egin dezakegu ikasgelan gertatzen den aniztasun egoerari modu egokiagoan erantzuteko?**

Modulua osatzen duten irakasgaiak hauek dira:

| |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| IRAKASGAIAK |
| Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan (6 kreditu) |
| Ikastetxearen Antolakuntza (6 kreditu) |
| Eskola Inklusiboaren Oinarriak (6 kreditu) |
| Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan (6 kreditu) |
| Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza (6 kreditu) |

DALak **5 kreditu** hartzen ditu guztira (kreditu bat irakasgai bakoitzetik). Beraz, lanari gutxi gorabehera **bertaratutako 50 ordu** eta bertaratu gabeko **75 ordu** dagozkie.

Kasu honetan adostutako metodologia ikerketa bat da. Esan bezala, ikerketaren oinarria ikasleentzat ezaguna izango den ikasgelako benetako egoera zein alor bat bat izango da. Alde horretatik, ikasleak egoera errealean jarriz, behar bezala justifikatutako hobekuntzak proposatzea du helburu, lan horretarako beharrezkoa zaielarik gaia maila teorikoan lantzea.

OHAR GARRANTZITSUA: Ezinbestekoa da lanaren garapen osoan zehar, uneoro, diziplinarteko ikuspegia gogoan izatea, lanaren oinarritzko helburua baita.

EHUagenda 2030 garapen iraunkorrari ekin

Nazio Batuen Erakundeko (NBE) biltzar orokorrak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen 2015eko irailean: pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza bat da, bake unibertsala eta justiziarako sarbidea ere indartu nahi duena. Agenda honetan garapen jasangarrirako 17 helburu (GJH) zehazten dira eta, hauekin bat, 169 helmuga 2030 urterako. EHU, beste erakunde askoren antzera, ibilbide orria aurkitu du GLHetan unibertsitatearen lana planetaren eta pertsonen erronka handiekin lerrokatzeko, 'inor bazter utzi gabe'.

Garapen jasangarrirako 2030 EHUagendak (2019-2025) jaso eta biltzen du UPV/EHUK 2030 agendaren 17 GLHetako 12ri egindako ekarpena eta, hauez gain, hizkuntza eta kultur aniztasunarekiko konpromisoa gehitu du 17+1 GJHaren bidez. Era berean, bertan bilbatzen dira plan sektorialak (Berdintasun plana, inklusio plana eta planeta campusa) eta IKD i3 hezkuntza ereduari (ikaskuntza x ikerkuntza x iraunkortasuna) egindako berrirakurketa.

Honenbestez, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak leku garrantzitsua hartzen du DAL honetan, bertan adierazten diren helburuon presentzia aldarrikatzen delarik prozesuan zehar, eta ikasle zein irakasleen parte-hartze aktiboa eta kritikoa hauen aldarrikapenean sustatzen delarik.



1.2. DALaren INGURUKO ARAUDIA

- Ikasle guztiek egin behar dute DALa (ikus DALa egiteaz salbueste egoerak), mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleak barne. Lan horretan lortutako notak 4.moduluko irakasgai guztien azken notaren %16a hartuko du, "Ikastetxearen antolakuntza" irakasgaiarena izan ezik, azken kasu honetan - irakasgaia urte osokoa izanik- notaren %10a hartuko du.
- DALean lortutako nota ikasturte bakoitzaren ohiz kanpoko deialdira arte gordeko eta konputatuko da soilik. Hurrengo deialdietan, DAL egin duen ikasleak ez du berriro egin beharko eta irakasgaietako kalifikazioetan ez da kontuan hartuko.
- Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sistemari uko egiten badio ere, DAL honekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta hala badagokio, ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.
- Egoera horretan dauden ikasleak moduluaren 9.astea baino lehen koordinatzailearekin jarri beharko dira harremanetan. Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, %10a Ikastetxearen Antolakuntza irakasgaiaren kalifikazioan eta %16a gainontzeko irakasgaiaren kalifikazioan.
- DAL-a, talde hirueledunean, aurreikusten den edozein hizkuntzatan egiteko aukera egongo da (ingeleza, euskara edo gaztelania). Hizkuntzaren aukeraketa talde bakoitzaren tutorearekin erabakiko da, baina azken honek izango du azken hitza erabakia hartzerakoan. Edonola ere, hizkuntzaren zuzentasuna beharrezkoa izango da DALean zehar eta hau ere ebaluatua izango da.
- Edonola ere, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zenb. 2017ko martxoaren 13a).

DALa egiteaz salbuespena

1. Graduko ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.

2. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, DALaren ehunekoa aplikatu gabe.

3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.

Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren koordinatzailearekin hitz egitea (**otsailaren 15a baino lehenago**), **egoeraren berri emateko**.

2. Ebaluazioa: gaitasunak, ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio irizpideak

2.1. GAITASUNAK

Moduluko lana eginez honako gaitasun hauek garatu nahi dira:

- Hezkuntzak pertsonen bizitza hobetzeko jokatzeko duen rol garrantzitsua ulertzea.
- Desberdintasunen kausak eta arrazoiak identifikatzea eta aztertzea.
- Desberdintasunak murrizteko estrategiak planifikatzea.
- Ikasgelako aniztasuna modu zabalean ulertzea eta adieraztea.
- Eskolako aniztasunari buruzko talde gogoeta egitea, ikasgelan gertatzen diren aniztasun egoerak eta haiei ematen zaizkien hezkuntza erantzunak deskribatuz eta aztertuz, diziplinarteko ikuspegia eta eskola inklusiboaren oinarriak kontuan hartuta.
- Ikasgelako aniztasunari erantzuteko hobekuntza proposamenak egitea, ikastetxerako bideragarriak direnak, inklusio irizpideen arabekoak eta adituen ekarpen teorikoak erabiliz arrazoiatuak.
- Modu autonomoan eta taldean ikasteko ohiturak eta trebetasunak hartzea.
- Informazio eta komunikazio baliabideak (IKTak, liburutegiak, fonotekak...) modu kritikoan erabiltzea, ezagutza iturri sinesgarrietara jotzeko eta hauen berri egokiro emanez, eta komunikazioa, ikaskuntza, ikerketa eta elkarlana hobetzeko.
- Ahozko eta idatzizko adierazpena lantzea eta beste adierazpen teknika batzuk erabiltzen ikastea.

2.2. IKASKUNTZAREN EMAITZAK

| IRAKASGAIAK | IKASKUNTZAREN EMAITZAK Lana bukatutakoan ikasleak jakingo du: |
|-----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ESKOLA INKLUSIBOAREN OINARRIAK | <ul style="list-style-type: none"> - Eskolako aniztasuna deskribatzerakoan eta hezkuntza erantzuna proposatzerakoan, defizitaren eredu gainditu eta gaitasunetan oinarritutako hezkuntza eredu argudiatzen - Praktika inklusiboak proposatzen, adituen iturriak erabilia |
| | <ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxearen antolakuntzaren aldagai esanguratsuenak (baliabideak eta antolaketa, |

| | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA | planteamendu instituzionalak...) identifikatzen, inklusio xedearen arabera - Familiak eta komunitate osoak ikastetxeetan parte hartzeko dituzten abantailak ezagutzen ditu. - Egoera aztertuz, eskola aniztasunaren ikuspegitik, ondorioak atera eta proposamenak lantzen |
| HAUR HEZKUNTZARAKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKAREN OINARRIAK TESTUINGURU ELEANITZETAN | - Gelako egoera soziolinguistikoa aztertzen eta baloratzen - Ikasgelako haurren jatorrizko hizkuntzari (edo hizkuntza barietateari) eta kulturari ematen zaien trataera aztertzen eta baloratzen - Linguistikoki heterogeneoa den ikasgela batean, eskolako hizkuntzaren ikaskuntza errazteko garatzen diren hezkuntza praktikak aztertzen eta baloratzen - Aniztasun linguistikoari modu egokiagoan erantzuteko, hobekuntza proposamen arrazoitua egiten, eskolako baliabide pertsonalak eta materialak kontuan hartuta |
| GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA | - Aniztasunak dakarren ingurune soziala identifikatzen. - Inguruneak gizakiarentzat duen garrantziaz eta eraginaz ohartzen. - Ingurunearen bilakaeran parte-hartze aktibo eta kritikoa izaten. - Aniztasun kulturala gizartearen elementu aberasgarritzat ulertzen. - Komunitatean inklusioaren aldeko proposamen didaktikoak diseinatzen. |
| ZAILTASUNAK GARAPENEAN ETA IKASKUNTZAN | - Zailtasunak identifikatzen, datuak emanda, eta ikaste-irakaste prozesuan zailtasun horiek sortzeko arrazoiak azaltzen - Bibliografia kontsultatu ondoren, arazoa lantzeko jarraibideak ezartzen, ikasgelako esku-hartze erabakiak talde ikuspegitik esplizitu eginez eta justifikatuz |
| ZEHARKAKO GAITASUNAK | - Taldean gizarte-konpetentziak landu eta garatzea: entzutea, adieraztea, negoziatzea, goraiatzea, lankidetzan jardutea eta partekatzea, emozioak adieraztea, emozioen kontrola, besteengandik emozioak jasotzea eta gatazkak kudeatzea. (ikus I eranskina) - Informazio eta komunikazio baliabideak informazio iturri eta kudeaketarako tresna gisa erabiltzen, baita horiek aztertzen eta baloratzen ere - Aukeratutako aniztasun egoerari buruz ematen duen informazioa eta egiten dituen balorazioak eta proposamenak modu argian eta egokian komunikatzen, bai ahoz bai idatziz - Hizkuntza gaitasuna: hizkuntza erabilera zuzena ezinbestekoa da. |

2.3. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

DALaren ebaluazioak bi zati izango ditu:

| | | | |
|------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|
| TALDEAREN EBALUAZIOA | Taldearen gizarte-konpetentziak eta egindako lanaren gaineko hausnarketa eta balorazioa, baita taldekideena ere | % 5 | % 5 |
| TUTOREAREN EBALUAZIOA | Azken txosten idatzia | % 65 | % 95 |
| | Lanaren defentsa tutorearen aurrean | % 20 | |
| | Tutoretzak | % 10 | |

DALa egiteak ebaluazio atal guztiak gainditzea eskatzen du.

Azkenik, atal bakoitza baloratzeko erabiliko diren irizpideak hauexek izango dira:

TUTOREAREN EBALUAZIOA

Azken txosten idatziaren balorazioa

Irizpideak:

- Azken txostenak irakasgai ezberdinetatik proposatzen ziren ikasketa emaitzak lortu direla erakusten du.
- Informazioa modu koherente, zuzen eta egokian komunikatzen da.
- Aipamen bibliografikoak -APA jarraituz- egiten dira eta iturri fidagarrietatik.
- Lanaren aurkezpena gidan emandako orientabideei jarraituz egin da.
- Hizkuntza zuzen eta argi adierazten da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna Diskurtsoaren ulergarritasuna.

Arloko terminologiaren erabilera egokia, ortografia akatsik ez, gramatika arauak, sintaxi egokia (perpaus koordinatuak eta menpeko perpausak, ergatiboa eta komuntadura).

Plagioa: Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egin balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

Lanaren ahozko defentsa

Irizpideak:

- Idatzizko txostenarekiko koherentzia
- Azalpenen argitasuna eta argudioen sakontasuna
- Taldekide bakoitzaren parte-hartzea
- Hizkuntza zuzen eta argi adierazten da, maila akademikoari eutsiz.

TALDEAREN EBALUAZIOA

Taldearen funtzionamenduaren balorazioa

Irizpideak:

- Garatu eta landu diren taldearen gizarte-gaitasunez hausnartzeko gaitasuna du (ikus I. eranskina).
- DALa egiteko taldearen prozesua deskribatu eta baloratu egiten dugu, indargune eta ahuleziak adierazten ditugularik.
- Bai irakasleak bai taldeak berak ezarritako epeak bete ditugu.

Taldeak egindako lanaren gaineko balorazioa

Galderak:

- Lan honek zer sentiarazi digu?
- Lan honek zer pentsarazi digu?
- Lan honekin zer ikasi dugu

Taldekideen balorazioa

Irizpideak:

- Bere lana arduraz bete du
- Bilera egunak eta orduak errespetatu ditu
- Jakin izan du entzuten, partekatzen eta taldekideen esfortzua estimatzen eta sustengatzen
- Taldeari ekarpen interesgarriak egin dizkio

3. DALaren GARAPENA

DALaren aurkezpenean esan bezala, proiektua bideratuko duen galdera eragilea honako hau da: **Zer egin dezakegu ikasgelan gertatzen den aniztasun egoerari modu egokiagoan erantzuteko?**

3.1. PROIEKTUAREN FASEAK

0.- Taldearen barne-arauak

1.- Hasierako egoera errealaren aukeraketa

Talde bakoitzak praktiketako ikastetxean/ikasgelan ezagutu duen eta aztertu nahi duen aniztasun adibide edo egoera bat aukeratuko du zergatia azalduz. Horretarako, kontuan hartuko ditu kideen proposamenak (aldez aurretik, kide bakoitzari gauza bera egin dezala eskatuko zaio, hau da, praktiketako ikastetxean/ikasgelan ezagutu duen eta aztertu nahi duen aniztasun adibide bat edo egoera bat aukera dezala, horretarako arrazoia azalduz).

2.- Txostena idazten joan atal hauek kontuan hartuz:

- **Azala** (ondoko informazioa azalduz: lanaren izenburua, moduluari buruzko informazioa, taldearen izena eta taldekideen izen-deiturak, ikastaldea, data)
- **Aurkibidea**
- **Sarrera:** lanaren nondik norakoak; aztertuko den aniztasun egoera zein den eta zergatik aukeratu den, erabiliko den metodologia eta lanaren atalen deskribapena.
- **Marko teoriko-kontzeptuala:** aurrekariak eta egungo egoera. Aukeratutako egoerarekin zerikusia duten kontzeptuei, teoriiei eta

- estrategiei buruzko bibliografiaren bilaketa, azterketa eta sintesia. (Autoreen ahotsa)
- **Metodologia**: berrikuste bibliografikoak sortutako galdera-eragileetatik abiatuz datu-bilketarako teknika aukeratzea eta burutzea, ikerketaren faseak hauexek izan daitezke: datuak biltzeko teknika eta tresna metodologikoa aukeratzea, landa lana (eskolan datuak biltzeko ikerketa parte hartzeko baimena sinatzea, ikus II eranskina), aniztasun egoeraren testuingurua, datuen sailkapena eta antolamendua.
 - **Lanaren garapena**: datuen azterketaren emaitzak teoriarekin kontrastatuz eta azkenik, horien arabera beharrak identifikatzea.
 - **Proposamena**: aniztasun egoera horren beharrei erantzuteko hobekuntza proposamen arrazoitua
 - **Lanaren ondorioak eta talde-ebaluazioa**.
 - **Erreferentzia bibliografikoak**
 - **Eranskinak** (talde barne-arauak, aktak,...)

Txostenaren ezaugarri formalei dagozkien orientabideak:

- Lanaren luzera: gehienez, 15-20 orrialde (eranskinak kontatu gabe)
- Letra mota eta tamaina: Arial 11
- Lerroarte: 1,5
- Testu justifikatuta (ezkerraldean eta eskuinaldean lerrotatuta)
- Paragrafoen lehen lerroan koska erabili
- Bibliografiaren aipamena egiteko erabiliko den formatua: APA (7.edizioa). Dena den, APA arauak horrela eskatzen ez badu ere, autoreen izen propioa ematea eskatuko da, hizkuntzaren erabilera sexistara ekiditeko. EHUko Berdintasun Sailaren gomendioa jarraituz: www.ehu.eus/documents/2007376/0/Gida/d9665c73-f57d-4574-8b74-1d58d2b4ac05 (19.orrialdea).
- APA arauak errespetatuko dira ondorengo erreferentzian oinarrituta: Encinas, M.C., Balza, I., Langarika, A., Peña, M., Urrutia, A. eta Zamalloa, T. (2021). *Iturri akademikoak erabiltzeko, aipatzeko eta erreferentziatzeko gida*. Bilboko Hezkuntza Fakultatea.

3.- Defentsa tutorearen aurrean.

Azkenik, talde bakoitzak egindako lana eta jarraitutako prozesua **defendatuko du tutorearen aurrean**.

3.2. IRAKASLE TUTOREARI EMATEKO DOKUMENTUA

Lehenengo dokumentua:

- Talde eraketa eta arauak.
- Ikasleek aztertuko duten aniztasun egoeraren deskribapena eta hori aukeratzeko arrazoiak.
- Ikasleek dakitena eta jakin behar dutena argitu ondoren zehaztu zerrenda horretatik zer izango den ikerketaren objektua (gaia, azpigaia, kontzeptu-gakoak, teoriak, trataerak,...) eta planifikazioa.
- Informazio iturri fidagarrietatik ateratako zerrenda bibliografikoa

(adituengan arreta jarri).

Bigarren dokumentua:

- Txostenaren marko teoriko-kontzeptualaren zirriborroa. (ez ahaztu erreferentziak bibliografikoak APA formatuan).
- Txostenaren metodologia atala: galdera-eragileak, diseinua eta datu-bilketarako erabiliko den teknika eta tresna metodologikoa.

Hirugarren dokumentua:

- Txostenaren lanaren garapena: landa lana (eskolan datuak biltzea), egoeraren testuinguruaren deskribapena, datuen sailkapena eta antolamendua, teoriarekin kontrastatuz emaitzak azpimarratu eta horien arabera beharrak identifikatzea.
- Proposamena: aniztasun egoera horren beharrei erantzuteko hobekuntza proposamen arrazoitua.

Azken dokumentua:

- Txosten osoa. (lanaren ondorioak eta taldearen autoebaluazioa zein eranskinak barne).

Lanaren defentsa tutorearen aurrean:

- Taldeak tutorearen aurrean egindako lana defendatuko du.

3.3. DAL-aren ANTOLAKUNTZA

DAL-a egiteko, gutxienez 4 ikaslez osaturiko taldeak izango dira, eta talde bakoitzari tutore bat esleituko zaio. Talde bakoitzak lanerako agenda bat zehaztuko du bere tutorearekin. Bertan tutoretzak egiteko eta azken lanak entregatzeko egunak zehaztuko dituzte. Gutxienez hiru tutoretza saio egingo dira talde bakoitzarekin.

Bigarren lauhileko 1. astean (urtarrilaren 27tik 31ra), DAL-a aurkeztuko da. 5. astea (otsailaren 24tik 28ra) eta 10. astea (martxoaren 31etik apirilaren 4ra) DAL-a garatzera eskainiko dira (kurtsu hasieran gehiago zehaztuko da). 15. astean (maiatzaren 12tik 16ra) proiektuaren defentsa egingo da tutorearen aurrean tutoretza orduetan (ikus kronograma).

| | | 2024/2025ko DAL KRONOGRAMA |
|---------------------------------------------|-----|---------------------------------------------------------------|
| 1. astea URTARRILAK 27-31 | | DALaren aurkezpena |
| 2. astea- OTSAILAK 3-7 | | |
| 3. astea OTSAILAK 10-14 | | 1. dokumentua |
| 4. astea OTSAILAK 17-21 | | |
| 5. astea OTSAILAK 24-28 | | DAL astea / tutoretza bat, gutxienez 2. dokumentua |
| 6. astea MARTXOAK 3-7 | | |
| 7. astea MARTXOAK 10-13 | | |
| 8. astea MARTXOAK 17-20 | | |
| 9. astea MARTXOAK 24-28 | | |
| 10. astea MARTXOAK APIRILAK 4 | 31- | DAL astea / tutoretza 1, gutxienez 3.dokumentua |
| 11.astea APIRILAK 7-11 | | |
| 12.astea APIRILAK 14-16 | | Oporrak (Apirilak 17-25) |
| APIRILAK 21-25 | | |
| 13.astea APIRILAK MAIATZAK 2 | 28- | Azken dokumentua |
| 14.astea MAIATZAK 5-9 | | |
| 15.astea MAIATZAK 12-16 | | Proiektuaren defentsa tutorearen aurrean |

I. Eranskina: GIZARTE-KONPETENTZIAK

1. **Entzutea:** isiltasunean egoten jakitea, moztu gabe, bestea ulertzen dudala ziurtatzeko galderak eginez, errespetu eta interes jarrera adieraziz (aurpegira begira, baieztatzen...).
2. **Adieraztea:** mezuak transmititzen jakitea (hasiera, garapena eta amaiera izan dezaten) argi eta garbi adieraziz (esaldi labur eta lengoia ulergarria erabiliz) ahots tonua, keinua eta gorputz mugimenduekin lagundurik.
3. **Negoziatzea:** nire interesak eta gainerakoak zeintzuk diren jakitea (beste pertsonari zer uste duen galdetzea), nahi dudana argitasunez eta lasaitasunez adierazten jakitea eta, beste pertsonarekin irtenbidea topatzeko gai izatea, justuen eta zentzuzkoen irtenbidea elkarrekin aukeratzen saiatzea, hau da bion interesa betetzen duen irtenbidea.
4. **Goraipatzea:** beste bati hitzez, esaldiz edota iruzkinaz gustatzen zaiguna edo berarengan preziatzen duguna esatea.
5. **Lankidetzan jardutea eta partekatzea:** laguntza jaso eta emateko gai izatea, ardurak elkartrukatzea, babesa eta goraipamenak eskaini eta jasotzea (materiala zein emozionala), garatzen diren jardueretan aktiboki parte hartzea (proposamenak egiten, iradokizunak edo ideiak babesten), adostutako arauak errespetatzea.
6. **Emozioak adieraztea:** norberaren emozioak identifikatzea (haserrea, tristura, umore txarra, alaitasuna, eskerrak, e.a.), adierazteko beharra sentitzen duzunean pertsona eta momentu egokiena aukeratzen jakitea.
7. **Emozioen kontrola:** besteekiko harremanetan eragozten dituzten norberaren emozioak ezagutzea (amorrua, agresibitatea, tristura, gogo falta, ...) eta kontrolatzen jakitea (arnasa sakon hartzen, hamarrera zenbatzen...)
8. **Besteengandik emozioak jasotzea:** beste pertsonari entzutea, bere lekuan jartzen saiatzea, pertsona hori ulertzen duzula, babesten duzula eta onartzen duzula adieraztea
9. **Gatazkak kudeatzea:** lehendabizi zeintzuk diren identifikatzea geroago beste ikuspegiak entzuten aurre ekiteko. Taldekide guztien artean irtenbideak eta estrategiak bilatu eta martxan jartzea

II. Eranskina: IKERKETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA

..... jaun/andreak,

.....izeneko ikastetxearen ordezkari denak

Helbidea:

Telefonia:

Emaila:

BAIMENA ematen die Haur Hezkuntza Gradu 2. mailako ikasleei ikastetxe honetan

..... izenburudun ikerketa-proiektua garatzeko.

Eta dagokion tokian hala ager dadin sinatzen du:

(sinadura)

Erakundearen ordezkari legala

Tokia eta data: